


INFLAZIOA

KPIa **-%0,4ra** arte galgatu zen abuztuan, argindarraren garestitzearen ondorioz

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Kontsumoko prezioen indizeak bi hamarren igo zuen urte arteko tasa abuztuan, **-%0,4ra** arte, uztaileko **-%0,6aren** aldean, argindarraren prezioaren igoerak eraginda. Bi hamarreneko gorakada horrekin, KPIa igoeretara itzuli zen, aurreko hilabetean lau hamarren atzera egin ostean. Hala ere, azken datu horrekin inflazioak bost hilabete daramatza tasa negatiboetan.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko abuztua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,4	-0,4
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	0,3	0,2
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,3	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,2	0,0
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	0,1	0,0
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-3,7	-0,6
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	3,9	0,3
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-8,8	-0,9


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Azken hilabeteetan ez bezala, berrikuntza gisa, INEk azaldu du alarma egoera amaitu ondoren produktu guztien prezioak aurrez aurre jaso daitezkeela. Hala eta guztiz ere, Covid-19 ondasun eta zerbitzuen talde berezien indizeak, hilabete hauetan etxeetan gehien kontsumitzen diren produktuen bilakaera erakutsi dutenak, argitaratzen jarraitu du, alarma egoera amaitu ondoren egoera aztertu ahal izateko. Inflazioaren bi hamarreneko gorakadan ekarpen handiena egin zuten taldeen artean, etxebizitza nabarmentzen

da, beraren tasa puntu bat eta hiru hamarren igo zelako, $-2,4$ an kokatuz, lehenago ere aipatu den elektrizitatearen prezioen igoerak eraginda. Era berean, hotelek, kafetegiek eta jatetxeek bost hamarren egin zuten gora, $0,6$ ra arte, ostiatuen prezioek gora egin zutelako, eta garraioak hamarren bat egin zuen gora, erregaien prezioa garestitu zelako. Aitzitik, aurreko aldi bezala, aisialdia eta kultura izan zen eragin negatibo handiena izan zuen taldea, pakete turistikoaren igoera txikiagoaren ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko uztaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	-0,4	-0,5	-0,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,5	2,2	1,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,5	0,5	3,6
Jantziak eta oinetakoak	0,9	1,0	-1,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-2,4	-2,7	-1,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,1	0,4	0,3
Osasuna	0,3	0,5	0,5
Garraioa	-4,1	-4,4	-3,2
Komunikazioak	-1,2	-1,2	-2,0
Aisia eta kultura	-2,8	-2,1	0,0
Hezkuntza	1,4	0,8	1,0
Jatetxeak eta hotelak	0,6	0,5	0,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,8	1,5	1,4

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.